

Andaluziar toreatzaile, emakumezko flamenko eta anarkistak

Santa Engrazia basiliza izen bereko ibaiaren ondoan dago eta Zigoitia eta Legutio udalerrien arteko muga betean. Gune interesgarri eta konplexua da, nahiz eta kontserbazio-egoera prekarioan dagoen. Jatorrizko eremu erlijiosoa baserri batean integratu dute, eta kanpotik zaila da basiliza bat denik antzematea. Alabaina, jatorrizko egurrezko egitura nahiko ondo kontserbatzen da barruan.

Santa Engrazia basiliza festa eta bilera gune garrantzitsua izan zen denbora luzez. Urtero, apirilaren 16an, inguruko herri guztietako bizilagunak joaten ziren bertara, ondo pasatzeko asmoz. Helburu hori lortzea erraza zela zirudien, Villarrealako Udala (egun, Legutio) bertaratutakoentzako ardoz betetako hainbat zahagi jartzeaz arduratzen baitzen.

Gerra Zibilean, basiliza Eusko Gudarostearen aterpe eta biltegi izan zen. Garai hartakoak dira seguruenik adierazpide artistiko oso berezi batzuk, eraikinaren barruan oraindik ere ikusgai daudenak. Egurrezko habeen artean, zezen motiboak dituzten marrazki xume batzuk ikus daitezke. Horrela deskribatzen zuen 1937ko borroken ondoren aurkitu zen eszena Jose Maria Gonzalez de Echavarrik, Valladolideko Unibertsitateko irakasle eta kausa frankistaren propagandista leialak:

«1936ko abenduaren 23a. Honelaxe pasatzen zuten denbora gorriek, hormak zikintzen! Marrazki groteskoak basiliza barruan. Toretzaileak eta emakumezko flamenkoak eliza batean margoturik andaluziar anarkista batzuen eskutik.»



Baseliza barruko marrazkien irudia 1938an (ezk.) eta orain (esk.).

Lerro horiek Gonzalez de Echavarri 1938an Informe sobre la situación de las Provincias Vascongadas bajo el dominio rojo-separatista (*Gorri-separatisten agindupeko probintzia baskongadoen egoerari buruzko txostena*) izenburupean argitaratu zuen lan batekoak dira. Gaur egun, ez dugu anarkista andaluziar horien presentziaren berririk, baina jakina da "Fulgencio Mateos" eta "Madrid" batailoi sozialistak egon zirela hemen. Baliteke toreatzaile eta emakumezko flamenkoen marrazki multzo deigarri hori gaur egunera arte iritsi zaizkigun aztarna material urrietako bat gehiago izatea.

Bestalde, azpimarratzekoa da Santa Engracia basiliza desakralizatua izan zela 1940ko hamarkadan. Francoren diktaduraren politika ekonomikoen barruan Urrunagako (Araba) eta Undurragako (Bizkaia) urtegien eraikitzeak tenpluaren inguruetan harrobi handi bat irekitzea bultzatu zuen. Era horretan, basilizak galdu egin zuen topagune izateko zuen funtzioa, eta berriz ere babesleku –oraingoan, urtegiako langileena– eta biltegi –obrako material eta makinena– bihurtu zen.

Balio historiko handiko txoko berezi horretan amaitzen da Gerra Zibileko euskal fronte errepublikanoaren ibilbidea. Hainbat kilometroko lubaki, metrailadoreen eskutada bat habi eta beste gerra-egitura batzuk eta beste bizitza- eta heriotza-espazio batzuk ezagutu ondoren, ikaskuntza kolektiborako oroitzapena da beste edozeinen gaintik gailentzen den printzipioa, betiere bizikidetzaren eta giza eskubideen praktika kontzienterako. Erresistentziaren minetatik eta porrotaren atsekabeetatik bizikidetzaren hazia sortu behar da, non guztiok geure lekua izango baitugu.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)